


# TRANBIA

## Gidoia

220 hitz

Errailetako suge zaharra, tranbia, gure hirietan da berriro, eta luzaro egongo omen da gure artean.

Oraingo tranbiak garbiak, isilak eta oso modernoak dira, baina hasierako tranbiak,



tranbia zaharrak, oso desberdinak ziren. Animaliak ibiltzen ziren hasieran bagoiei tiraka; zaldiak, mandoak eta behorrak izaten ziren

bidaiarien gidari, berdin Parisen, Londresen edo Donostian. Ibilgailu horiei "odol tranbiak" deitu zieten.

Garraiorako traba asko izaten ziren; animalien zauriak, kaleetako zuloak..., eta bidaiariak ez ziren eroso egoten. Baina iraultza etorri zen tranbietara, Burdinaren aroa.

Altzairuzko trenbide batetik, altzairuzko gurpilekin, tranbia garbiak, isilak eta azkarrak. Elektrizitatearen garaiak, garai modernoak ziren, eta bazterrean geratu ziren animaliek gidatuak "odol tranbiak".

Euskal Herrian oso famatua izan zen

Bilbotik Santurtzirako bidea egiten zuen tranbia bidea.



col. Joseph P. Saitta



Baina hasierak arrakastaren ondoren, garai ilunak etorri ziren tranbiarentzat. Autoa agertu zen, eta tranbiak behea jo zuen. Euskal Herriko tranbia bideak desagertu egin ziren. Asmakizun zoragarria

izan zen autoarena, baina autoak ez ditu onurak soilik ekarri, arazoak ere azaldu dira: ilarak, istripuak, gasolina gero eta garestiago... Eta orain, XXI. mendean, errailetako sugea itzuli da gure kaleetara, sekula baino indartsuago!

Gaur egungo tranbia hiriko edozein zorutik mugitzen da, berdin zaio asfaltoa, galtzada, harria, harea, belarra... Bagoi bakoitzak 25 metroko luzera du, sartu eta ateratzeko lau ate, eta Bilboko eta Gasteizko tranbietako bagoi bakoitzak 192 bidaiari garraia ditzake.



Autobusa, trena, autoa... horietan ibilita egongo zarete, seguru! Eta tranbian?

*Errailetako suge zaharra, Txinparta liburutik hartuta*